

Akta zenbakia: 7/2019

UDALAREN OSOKO BILKURAK 2019ko BAGILAREN 5ean EGIN DAUAN EZ-OHIKO BILERA.

BERTARATU DIRENAK:

<p><u>Alkatea-udalburua:</u> IÑIGO GAZTELU BILBAO</p> <p><u>Behin-behineko Idazkaria:</u> Ortzi DE LA QUINTANA IBÁÑEZ batzarra ziurtatu dauana</p>	<p><u>Zinegotziak:</u> EUNATE GUARROTXENA ARZUBIAGA. FRANCISCO AGUAYO MEANA. ITXASO SAN ROMAN AIARTZA. ARRATE ONRAITA MARTÍN. ARANTZA ITZIAR MARTÍNEZ. MIGUEL ANGEL GAZTELU BARRENA. MARÍA LUISA MEZO LOROÑO. JOSEBA UGARTE YURREBASO. ESTIBALIZ BOLUMBURU GARCÍA. ANA MARÍA JAUREGIBETIA OLAZABALAGA.</p>
--	--

Larrabetzuko udaletxeko batzar-aretoan, bi mila eta hemeretziko bagilaren bostean.

Deialdia beharden moduan egin eta eguneko aztergaien berri eman ostean 2019ko bagilaren 5ean, lehenengo deialdian batu dira goian aipatutako zinegotziak, denak be Udalbatzako kideak, eta Alkate jauna den Iñigo Gaztelu Bilbao izan da batzarburua. Ana Maria Jauregibeitia Olazabalaga zinegotzia ez da bertaratu eta ez-etortzea justifikatu du.

17:00etan, Alkate-Udalburu jaunak batzarra hasi dela adierazi du, batzarra egiteko behar besteko quoruma dagoela ziurtatu ostean, TAOLaren 46.2.c) eta FAAREN 90. artikuluan agindu dena betetzeko. Ostean, erabaki beharreko gaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin diote. Ondoko ERABAKIAK hartu dituzte:

46.- 2018 EKITALDI EKONOMIKOAREN UDAL KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Alkate-Udalburuak hitza hartu du eta espedientearen berri eman du: 2019ko jorrailaren 29an Gobernazio, Ogasun, Pertsonal eta Ongizate Batzorde Informatiboa Kontu Batzorde Berezi bezala eraturik, Larrabetzuko 2018ko Udal Kontu Orokorraren aldeko txostena egin zuen. 2019ko lorailaren 9an txostenaren inguruko iragarkia argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Horren inguruan 15 eguneko jendeaurreko epean ez da alegaziorik egin. Beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikulua betetzen direla ikusirik, proposatzen da 2018 ekitaldi ekonomikoaren Udal Aurrekontu Orokorra onartzea.

Horrekin guztiarekin, Udalbatzak, Gobernazio, Ogasun, Pertsonal eta Ongizate Informazio Batzordean iritzitakoari jarraituz, EH Bildu udal taldeko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ-PNV udal taldeko lau zinegotzien abstentzioarekin, gehiengo osoz, hurrengo ADOSTEN

DU:

LEHENENGOA.- Larrabetzuko 2018 ekitaldi ekonomikoaren Udal Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA.- Ebazpen hau eta 2018ko Udal Kontu Orokorren kopia EAeko Kontu Auzitegiari bidaltzea.

47.- AUZITEGI GORENAREN ADMINISTRAZIO AUZIBIDEKO 5. ATALAK EAeko AUZITEGI NAGUSIAREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ARETOAK 451/2014 PROZEDURA ARRUNTEAN EMANDAKO 556/2015 EPAIAREN AURKAKO KASAZIO ERREKURTSOAREN INGURUKO 508/2019 EPAIAREN BERRI EMATEA.

Alkate-Udalburuak hitza hartzen du eta epaiaren berri ematen du. Bertaratuei galderarik duten galdetu du eta ez denez galderarik egon, bertaratutako zinegotziek espedientearen jakitun gelditzen dira.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Udalburuak batzarra amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamar minutu direnean. Nik, behin-behineko Idazkaria naizenez, hori guztia ziurtatu dut.-

O.E.
ALKATEA